

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ayerdi lehendakariordeak Baztan-Bidasoari mugaz gaindiko lankidetzak eskaintzen dizkion aukerak azpimarratu ditu

Gaur goizean Bertzen bilera bat egin du eskualde horretako eragile sozio-ekonomikoekin

Viernes, 12 de febrero de 2016

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi Baztan-Bidasoara joan da ostiral honetan bere Departamentuko ildo estrategikoak ezagutarazteko eta zonalde horretako eragile ekonomikoen proposamenak jasotzeko; haien aurrean mugaz gaindiko lankidetzak eta enpresen artekoak ematen dituen aukerak azaldu ditu.

Horri buruz, Manu Ayerdik eskualde honetako enpresen elkartzeko dinamismoa "oso handia ez dela" egiaztatu du, eta enpresei gonbita luzatu die alderdi komunetan lagundu dezaten (merkaturatzea eta banaketa, berrikuntza...).

Alde horretatik, sektore anitzeko lantaldeak sortzea proposatu du ekintza guztiak dinamizatu, koordinatu eta ezartzeko.

Garapen ekonomikorako lehendakariordeak azaldu du ziur dagoela elkartegintza, jarduera-sektoreka edo sektore anitzen arabera, ekonomia dinamizatzeko behar bat dela eta indartsuagoak izaten laguntzeko. "Sektoreko lankidetzak sustatu behar da, enpresen arteko lankidetzak, eta baita mugaz gaindikoa ere", esan du zonaldeko 40 bat eragile sozioekonomikorekin egindako bileran, Betizko Jaurreriko jauregian (Bertizarana).

Alderdi horri dagokionez, zonalderako mugaz gaindiko lankidetzak eskaintzen duen aukera azpimarratu du, ikusita turismoak ekonomian zer garrantzi duen, baina baita tokiko produktuak banatzeko edo jardunbide egokiak trukatzeko ere. Ayerdik nabarmendu du mugaz gaindiko lankidetzak negozioak egiteko baliatu daitekeela eta finantzaketa eskuratzeko (Europako programak, adibidez).



Ayerdi lehendakariordea zonaldean enpresa-lankidetzak handiagoa izatearen alde agertu da.

Zonaldeko enplegua

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi kezkati agertu da enplegua Baztan-Bidasoa eskualdean garaiari oso lotua dagoelako, eta bereziki Baztango ibarrean 45 urtetik gorakoen artean langabeziak duen indizeagatik, % 45 baino gehiago; hori dela eta, zonaldeko enplegugarritasuna eta lanbide-heziketaren gainean lan egitearen alde agertu da.

Aipatu denez, eskualde honen ezaugarria lan-merkatua garaiari oso lotuta egotea da, neguan langabezia igo egiten baita. Hala, urtarrilean Bidasoa aldean mila bat langabetik gora izan dira, turismo, merkataritza eta zerbitzuen sektorearekin harreman handia duelako (eskualdeko enpresa-sarearen berezko jarduerak direnak). Nolanahi ere, 2015ean Nafarroan % 14,7ko langabezia-tasa bazegoen, Baztanen % 7,8 izan da, % 9,4 Bortzirietan eta % 11,7 Malerrekan.

Enpresa-kopuruari dagokionez, Baztan-Bidasoa eskualdean 2.180 zeuden 2009an eta 1.815, 2015 ean, nahiz eta azken urtean 57 enpresa berri ortu.

Hala ere, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak lurraldeak dituen erakargarritasun nahiz indarguneak nabarmendu ditu: bi hiriburuen artean eta Frantziaren alboan kokatzea geografikoki. "Egoera horrek negozio, merkataritza eta turismo gehiago sor dezake", esan du Ayerdik, eta aldi berean, zonaldeko industria-tradizioa "indartu eta babesteko" beharra defendatu du; izan ere, industria eta enpleguaren kalitatea binomioa "egiaztatutako errealitate bat" da. Gero eta industria gehiago, orduan eta batez besteko soldata hobeak, egonkortasun handiagoa eta langabezi gutxiago, eta zeharkako zein eragindako biderkatzaile gehiago enpleguaren sorreran (0,58 eta 0,2)", adierazi du.

Lan-eskema

[Sakanan](#), [Pirinioetan](#), [Erriberan](#) eta [Estellerrian](#) dagoeneko egin den moduan, eskualdeetako eragileekin egindako bileren esparruan, Manu Ayerdik Bertizen zonaldeko eragileei Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza Nafarroarako prestatzen ari den "espezializazio adimentsuko estrategia" azaldu die ere; haren helburua kalitatezko enplegua sortzea da, eta honako hauetan oinarritzen da: enpresako egiturako ekintzak (tamaina, klusterrak eta garapenerako aukerak); inbertsioa sustatzea eta finantzaketa eskuratzea; I+G+B; nazioartekotzea; eta lankide-heziketa; lan-harremanak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzen jarraitu behar da ere.

Ayerdi lehendakariordeak ere Lehendakariordetzak laguntza emateko duen aurrekontu-aurreikuspenak zehaztu ditu ere, eta haien artean aipatu ditu: lehentasun-zonaldeko proiektuetarako berrindustrializazioko plan bat (400.000 euro) eta lehentasun-zonaldeko berrindustrializazioko plan bat (200.000 euro).



Azken urtean zonaldean 57 enpresa berri sortu dira.